BESTELAKO XEDAPENAK

SEGURTASUN SAILA

1311

EBAZPENA, 2014ko martxoaren 11koa, Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendariarena. Ebazpen honen bidez, hauxe xedatzen da: batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salara bidaltzea 60/14 prozedura arrunteko administrazioarekiko auzi errekurtsoari dagokion CON-079-2014-X administrazio-espedientea; eta, bestetik, balizko interesdunak epatzea sala horretan ager daitezen.

Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salak 60/14 prozedura arrunteko auzi-errekurtsoari dagokion CON-079-2014-X administrazio-espedientea igor dakiola eskatu du, Auzitegi horretan izapidetzen ari den 60/2014 prozedura arruntaren administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ebazteko. Auzi-errekurtso hori xedapen honen aurka jarri da: Segurtasuneko sailburuaren 2013ko azaroaren 20ko Agindua, Ertzaintzako lanpostuen zerrenda aldatzen duena.

Hori horrela izanik, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 49. artikuluan xedatutakoaren arabera, honako hau,

EBAZTEN DUT:

1.– Eskatutako administrazio-espedientea Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salara bidaltzea.

2.– Prozedura honetan interesa dutenak epatzea, egoki baderitzote, Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan demandatu gisa ager daitezen –60/2014 prozedura arruntean– eta beren interesen alde egin dezaten. Horretarako, bederatzi egun izango dituzte, ebazpen hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

3.– Jakinaraz bekie interesdunei.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko martxoaren 11.

Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendaria,
EUGENIO ARTETXE PALOMAR.